

# FUNTSEZKO JARDUERAK

Gure enpresa mantendu dadin, oso garrantzitsua da bezero berriak lortzea, baita lehendik ditugun bezeroak mantentzea. Horretarako, guk eskaintzen duguna fidagarria izan behar da eta merezi duela erakutsi behar dugu; beraz, detaile txikietan arreta handia jarri behar dugu. Web orrialdearen eta lokalaren itxura zaindu beharko dugu inpresio txarrik eraman ez dezaten. Bezeroen zalantzak ahalik eta azkarren erantzun eta konponduko ditugu konfiantza mantentzeko eta lortzeko.

Taldekide bakoitzak ardura bat edukiko du: Paulak bezeroekin harremana mantenduko du; Ilianek bezeroei dudak argituko dizkie; Maialenek enpresekin negoziaketak egingo ditu; eta Ander lokaleko harreraren egongo da, ondo etorriko zaigu proiektua aurrera eramateko,



Publizitatea beharko dugu gure enpresa aurrera eramateko eta jendeari zabaltzeko. Hasieran diru asko galduko dugu, izan ere, lokalaren alokairua, telefono linea bat eta webgunea diseinatu eta mantentzeko ordaindu egin beharko dugu. Denborarekin dirua irabazten joango gara eta bankuak eman digun mailegua bueltatu ahal izango dugu.

Maialen izango da gastuen kontuak eramango dituen kontulari bati ordaintzeko prest egon arte. Gainera, abokatu bat beharko dugu gure bezeroak defenditzeko

egoera txarrean lan egiten badute eta langileen eskubideak defendatzeko. Horrez gain, langileen soldata hobetzen saiatuko da. Maialenen ama izango da gure abokatua enpresa irekitzen dugunetik aurrera.

Kotxe moduko bat alokatuko dugu enpresetara joan ahal izateko negoziatzeko eta beraiekin hitz egiteko. Maialen arduratuko da zerbitzu honetaz, izan ere, gure kudeatzailea da, eta Paula enpresekin aurrez aurre hitz egiteaz arduratuko da.

Amaitzeko, Ilian sare sozialez eta hedabidez arduratuko da bere informatika abileziarekin; adibidez, iragarkiak egingo ditu.

  
**PAMI**  
*Lana*  
*Langileentzat*

